

Muniategi: «Ez dago justizia propiorik herria bera bere buruaren jabe ez bada»

Hausturarik gabe, egungo legeak hartu nahi ditu abiapuntutzat EAK

Itzi Bilbao / Bilbo

◀ Egun Hego Euskal Herrian indarrean den egituratze juridikoa oinarritzat hartu eta dagoena gaintzea izango da egunen batean euskal justizia

propioa gauzatu dadin jorratu beharreko bidea. Hori da, behinik behin, Eusko Alkartasunak (EA) proposatzen duen bidea, alegia Espainiako Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta Foru Hobekuntza abiapuntutzat

hartu eta eskaintzen dituzten zirrikietuz baliatzea. Proposamenaren berri Abel Muniategik eman zuen atzo eguerdian Abokatu Euskaldunen Sindikatuak antolatutako jardunaldietan eskaintako hitzaldian.

ESPAINIAKO Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak zer eskaintzen duen eta, bere alderdiaren ustez, zenbateraino gara daitekeen argitu zuen Muniategik atzo egin agerraldian. Legeak berak eskaintzen dituen aukerez baliatu, indarrean diren legeak gaintu eta, une honetan nagusi den egituratze juridikoa «bortxatu gabe», egoera berri bati ekitea proposatu zien abokatu euskaldunei.

Are gehiago, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriaren gaineko xehetasunak eskaini zituen Muniategik, beraren 150.2 atalak «zer dioten, orain eta hemen», sakonki aztertu beharra dagoela proposatuz. «Bide horretatik agian zerbait lor dezakegu», adierazi zuen.

«Herri honetan, izan al dugu inoiz justizia mailako eskumenik? Esaterako, izan al da inoiz justizia autoktonorik? Halakorik egon bada, eta nik baietz uste dut, nolabaiteko eskubide historikoak izango ditugu, eta ez dezagun ahaztu Konstituzioak eskubide historikoak babesten dituela. Hori da bidea», zehaztu zuen Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak.

Proposamenak mahai gainean

Muniategik bere alderdi politikoak (EA) mahai gaineran jarritako proposamena eman zuen ezagutzera. Izan ere, Abokatu Euskaldunen Sindikatuak euskal justizia propioa lortu ahal izateko EAK berak, Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) eta Euskal Herriarrok (EH) erakundeak proposatzen dituzten norabideak bildu eta auziaren gaineko eztabaida proposatuko dio euskal gizarteari.

Atzoko agerraldian, Muniategik Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian indarrean den egituratze juridikoa zertan den aztertu zuen lehenik eta behin. Horren ondoren, eta xedea zein den kontuan izanik, «ingurune honekin eta inguru honetan zer egin



MONIKA DEL VALLE

Euskal Justizia lortzeko EAK zeintzu bide proposatzen dituen jakinerazi zien Muniategik abokatu euskaldunei.

dezakegun aztertu behar da, eta, azkenik, zer egin behar litzatekeen gerora gainean dugun hesia gaintzeko», gaineratu zuen EAKide honek.

Euskal Justiziaren gaineko edozein proposamen abagune are zabalago batean kokatu behar dela gaineratu zuen segidan. Bere esanetan, auzia «eraikuntza nazionala-

ren baitan kokatzen da, erdi-erdian. Gure herriaren benetako justizia nazionala eraikuntza nazionalarekin etorriko da, subiranotasunarekin batera; bestela ez da posible ezer ulertzea», azpimarratu zuen Muniategik.

Abiapuntutzat Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko herrialdeak hartu zituen arren, EAK eginiko proposa-

menak Hego Euskal Herria hartu zuen oinarri gisa, «Iparaldeko egoera benetan gordin baita».

Aste honetan bertan Ipar Euskal Herriko ordezkariak Chevenement Barne ministro frantziarraren idazkariarekin izandako bilera gogoratuz, «juridikoki Ipar Euskal Herria existitu ere ez dela egiten», gogoratu zuen azkenik.

Madrilgo Auzitegi Nazionala, legez kanpo

■ «AUZITEGI Nazionala egon hor dago, nahiz eta auzi honi buruz inork ez duen une honetan ezer esaten». Ironiaz erantzun zien Abel Muniategik titular esanguratsua bila inguratu zitzaizkion kazetariei.

Duela hogeitau urte zer esaten zen gogoratuz, EAEko Justizia sailburuordeak «gerora ezer gutxi»

esan dela adierazi zuen, «nahiz eta azken boladan zerbait entzun dudana».

«Zer da, baina, Auzitegi Nazionala?», galdetu zien Muniategik kazetariei: «Entzutegi berezia. Eta zer dio Konstituzioak zera bereziaz?». Galderarekin batera erantzuna ere eskaini zien: «Konstituzioak berak gauza bi finka-

tzen ditu: bateteik, batasun juridikozionala, eta bestetik, ez dela aintzakotzat hartzen inolako salbuespen egiturarik». Horren arabera, Madrilgo Auzitegi Nazionala antolamendutik kanpo geratzen dela azpimarratu zuen EAKo kideak.

Euskal Justiziaren garapenaz egingandako proposamena

denboran mugatzerik ba ote dagoen jakin nahi zuten kazetariak. Eperik ba al du horrek? «Ni neu ez naiz profeta», ihardetsi zien solaskideak ironiaz betetako irribarrea egiten zuelarik: «Nik egitasmoa zein den argitu nahi izan dut. Gero gerokoak. Gu horren atzetik gabiltza eta noiz lortuko dugun, auskalo».

Nafarroan gripe kasuak bikoiztu egin dira azken astean

■ Osasunbidearen ustez, hala ere, ezin esan daiteke epidemia baten aurrean gaudenik

Europa Press / Iruñea

◀ GRIPE kasuak bikoiztu egin dira azken astean Nafarroan. Osasunbideak, Nafarroako Osasun zerbitzuak, bikoiztu egin ditu tratamenduak. Bertako iturriek, ordea, ukatu egin dute epidemia baten aurrean gaudenik.

«Urte sasoi honetan jendea gehiago hozten da, eta katarroak ugariagoak dira; espero zitekeen egoera baten aurrean gaude, eta horrek ez ditu gure zerbitzuak gaintu», esan zuen atzo Kiko Beteluk, Osasunbideako lehen mailako artatze zerbitzuruak.

Gripe kasuetan zuzen jokatzeak duen garrantzia nabarmendu zuen Beteluk: «Ez da urduri jarri behar, likido ugari hartu behar da, ez da erre behar eta medikuak aurreko kasuetan emaniko gomendioak jarraitu behar dira». Pertsona zahar eta gaztetxoek kasuetan, eta gaixotasuna kronikoa denean soi-lik joan behar dela medikuarengana dio Kiko Beteluk.

Gripeak «bilakaera naturala» jarraitu behar duela gogorazi dute Osasunbideako ardura-dunek, «ez da sendatze prozesua azkartu behar. Kasu konkretu batzuetan soilik erabili behar dira gripearen kontrako botikak».

Santiago Lopez Esparza igandean etorriko da San Adrianera

Europa Press / Iruñea

◀ SEI hilabetez Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarra (FARC) gerrillaren esku bahituta egon ostean, Santiago Lopez Esparza igandean etorriko da San Adrianera (Nafarroa), bere herrira.

Ingeniaria da Lopez, eta aspaldi bizi da Euskal Herrikan kanpo. San Adrianen egongo den egunetan omenaldia egingen diote herri-tarrek.